



Arartekoaren ebazpena, 2012ko urtarrilaren 31koa. Horren bidez, Ortuellako Udalari gomendatzen zaio senar-emazte erreklamazio-egileak biztanleen udal-erroldan inskribatzeko.

Aurrekariak

1. (...) andreak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, Ortuellako Udalak ez zielako biztanleen udal-erroldan alta ematen utzi ez berari, ez bere senarrari, benetan beren bizileku den etxebizitzan.

Senar-emazteak egungo helbidean bizi dira duela hamar urte ingurutik. Oinordetzan jaso zuten Ortuella udalerriko etxebizitza hori eta bertara lekualdatu ziren, beheko solairuan zegoelako eta eskailearik ez zuelako. Kexan adierazi dutenez, denbora guzti honetan zehar egindako kudeaketak gorabehera, udalak ez ditu bertan erroldatu, etxebizitza ez dagoelako Katastroan sartuta. Hala ere, etxebizitzaren eskritura publikoetan beren-beregi ageri da etxebizitza bat dela eta 30 urte baino gehiago daramatzate Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzen. Halaber, etxebizitzaren aurreko jabe eta bizilagunak helbide horretan egon dira erroldatuta.

2. Kexa tramitatzea onartu ondoren, Arartekoak, 2011ko martxoaren 29an, erreklamazio-egileak biztanleen udal-erroldan altan ez emateko arrazoiei buruzko informazioa eskatu zion Ortuellako Udalari eta eskaera hori berriz ere errepikatu zuen 2011ko maiatzaren 12an. Erantzunik jaso ez zuenez, hainbat kudeaketa egin genituen telefono bidez erregistroaren pertsona arduradunarekin, baina ez genuen emaitza positiborik lortu, eskaera beteko zutela adierazi ziguten arren.

Azkenik, 2011ko abenduaren 12an, azken ohartarazpena bidali genuen eta orduan ere ez genuen erantzunik jaso.

Erreklamazioa ikusita, eta azaldutako kexaren planteamendua eta aurrekariak aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoetak bidaltzea:

Gogoetak

1. Abiapuntu gisa, gogorarazi behar dugu herri-administrazioak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariaz erantzutera. Administrazioak behar bezala izapidetu behar ditu biztanleek aurkeztzen dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Arartekoak hainbatetan salatu du oso arriskutsua dela administrazioaren isiltasuna, izan ere biztanleak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez





baitakite administrazioak zer egingo duen beren asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu administrazioak oker jokatu duela eta Ararteko erakundeak horren berri eman behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua bultzatzen ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Aitzitik, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea eta administrazioaren jarduna zuzentzen duten printzipio orokorren ez-betetzearen adierazle da, kontuan hartuta jardun horrek, lege aginduz, herritarren zerbitzura egon behar duela (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa -HAAJAPEL-).

2. Horrez guztiaz gain, adierazi behar dugu Ortuellako Udala erakunde honekin lankidetzan aritzeko prest egon ez zela. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta albait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan aipatu dugunaren arabera, udalak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak.
3. Udal Erroldaren Erregistroa administrazio erregistroa da, eta udalerrian bizi diren pertsona guztien helbidea eta inguruabarrak jasota uzteko eginkizuna betetzen du, TAOLren 16. artikulua zera dio:

“Udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emalleak izango dira ondorio administratibo guztietarako”.

Udal erroldan inskribatzeari buruzko ziurtagiria udalerrian bizi izatea frogatzeko agiria da, hots, soilik udalerrian bizi izatea egiaztatzeko balio du. Dokumentu hori zerbitzu publiko baten eskabidean exijitzen denez gero, beharrezkoa da herri administrazioekiko harremanetan.

Aitzitik, Katastroaren funtzioak eta Erroldarenak ez dira berdinak. Higiezinaren Katastroaren Erregistroa ondasun higiezinaren administrazio-erregistroa da eta





zerga-xedea du. Katastroak era pribatu edo publikoan sartzten den informazio grafiko eta alfanumerikoa ematen du, eta, beraz, salerosketaren xede den higiezinaren definizio zehatza ematen laguntzen du. Bere helburua, beraz, ez da higiezin baten titulartasuna edo pertsona batek udalerrian duen egoitza egiaztatzea.

Lege araubideak (zehazkiago Tokiko Araubidearen Oinarrien Legea, Populazio eta Lurralde Mugapenari buruzko Arandia –PLMA- eta Estatistika Erakunde Nazionalaren ebazpenak) bereizi egiten ditu erroldan inskribatzea eta higiezina hartzea legezkoa edo legez kontrakoa izatea. Arautegi horren arabera, inskribatzeak ez du zerikusirik etxebizitza hartzea legezkoa edo legez kontrakoa izateari buruzko eztabaida juridikoekin.

Biztanleen eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 59.2 artikuluan xedatuta dagoen ahalmenak ez du esan nahi okupazio tituluaren legezkontasuna aztertzeko ahalmena duenik, baizik eta nortasuna eta benetako bizilekua egiaztatzea du helburu. *“El Ayuntamiento podrá comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto la presentación del documento nacional de identidad o tarjeta de residencia, el libro de familia, el título que legitime la ocupación de la vivienda u otros documentos análogos”.*

Estatistikako Institutu Nazionaleko buruaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren 1997ko uztailaren 5eko baterako Ebazpenak jarraibide teknikoak ematen dizkie udalei, udal-errolda eguneratzeari buruz (2007/7/26eko BOE). Ebazpen horrek argi eta garbi azaltzen ditu udal-erroldaren izaera eta xedea. Hori horrela, ebazpeneko 3. artikulua honakoa dio:

“El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo, es por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponde al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho.

En consonancia con este objetivo. La norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local: Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad.

Por ello, las facultades atribuidas al Ayuntamiento en el artículo 59.2 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales para exigir la aportación de documentos a sus vecinos tiene como única finalidad comprobar la veracidad de los datos consignados, como textualmente señala el propio artículo.





En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción padronal se ajustan a la realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificaciones que acrediten aquel hecho.

*Y, en concreto, la posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (artículo 59.2 del Reglamento), **no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado**¹.*"

4. Erroldan inskribatzeak pertsonen eskubideei eragiten die; izan ere, auzokide bihurtzen da erroldatu ondoren. Gainera, exijitu egiten da eskubide zibiletarako (politikan parte hartzea) nahiz eskubide sozialetarako: osasun-txartela eskuratzea, gizarte laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzarako eskaerak, etab.

Auzitegi Gorenak, 2005eko irailaren 15eko epaian, udal erroldan inskribatzearen garrantzia aipatzen du, eta auzitegiaren irizpidearekin bat etorri, a quo *"...no puede procederse a dar de baja sin más a los vecinos en el Padrón municipal, pues ello afecta al ejercicio en la práctica de derechos fundamentales, como son el de participación electoral y la libertad de residencia que consagra el artículo 19 de la Constitución"*

Estatistikako Erakunde Nazionaleko presidentek eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiak batera emandako 1997ko apirilaren 1eko Ebazpenak, udalei udal erroldaren kudeaketari eta berrikuspenari buruzko jarraibideak ematen dizkienak (BOE 2007/4/11), udalek udal erroldan gertatzen diren aldaketak izapidetzean jarraitu beharreko prozedura arautzen du.

Haren xedeaz hitz egitean, nahi den tokian bizitzeko oinarrizko eskubidearekin duen lotura esan nahi da, *"a fin de armonizar, las obligaciones de los ciudadanos de inscribirse en el padrón del municipio en que residen habitualmente y comunicar los cambios de residencia que les afecten, con el derecho a fijar libremente la residencia que reconoce la Constitución, así como coordinar las actuaciones entre los Ayuntamientos afectados"*.

Oinarrizko eskubideen erabilera ukitzeaz gain, funtsezko betekizuna da zerbitzu eta prestazio publikoen eskaeran. Eskubideak erabiltzeko eskaerak arautzen dituen arautegiak erroldan inskribatuta egoteari buruzko ziurtagiria (edo errolda-agiria) ezarri du aurkeztu beharreko agirien artean, esate baterako osasunerako, doako justiziarako, beketarako eta gizarte babeserako eskubideei dagozkienak.

¹ Letra lodia gurea da



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

15/2012 GOMENDIOA, urtarrilaren 31koa, Ortuellako Udalari egina

Dagozkion tramiteak egin ondoren eta ahalik eta arinen, erreklamazioa egin duten senar-emazteak beren bizilekua dela egiaztatu duten helbidean inskribatzeko, biztanleen udal-errodan.

